



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IRAGARKIA

2021eko martxoaren 29ko Alkatetza Dekretu bidez honako akordioa hartu da:

Lehenengoa: Azkoitiko Udalaren eta Gurutzeagako Etxebizitzak, S.L. Sozietatearen arteko hitzarmena onartzea, 29. esparruko P-1 eta P-2 partzelen erabilpen lagapenari buruzkoa honako klausulen arabera:

Lehena.- GURUTZEAGAKO ETXEZIBIZAK S.L. sozietateak Azkoitiko Udalari lagatzen dio, aldi baterako, bere jabetzako partzela horiek osatzen duten espazioa, erabilera publikoa eman diezaion, zehazki, aparkaleku publiko gisa erabili ditzan.

Bigarrena.- GURUTZEAGAKO ETXEBIZITZAK S.L. sozietateak Udalari baimena ematen dio partzeletan aparkalekua prestatzeko beharrezkoak dituen lanak egiteko.

Honako hauek dira egin beharreko aldaketak:

- Partzelak beharrezkoak dituen lur mugimenduak egitea.
- Partzelaren gainazala hartxintzarrez estaltzea.
- Aparkaleku-plazetan seinaleak jartzea.

Lur mugimenduak egiteko lanak dirauten bitartean dagokion azterlan arkeologikoa egin beharko da, lurak arkeologi presuntzioa baitute 1998ko ekainaren 3ko Kultura sailburuaren aginduaren baitan, eta Azkoitiko Hirigintza Arauen fitxa partikularraren arabera. Lan horiek Azkoitiko Udalak kontratatu eta ordainduko ditu.

Hirugarrena.- Espazio horren erabilerak bi urteko iraupena izango du hitzarmen hau sinatzen denetik.

Bi urteak igarotzen direnean erabilera emateko adostasuna baldin badago, hitzarmen berria sinatuko da.

Bi urteak igaro aurretik hitzarmen hau amaitu ahal izango da zortzigarren klausulako deuseztatze kausaren bat ematen baldin bada.

Laugarrena.-Lagapenak dirauen bitartean, AZKOITIKO Udalak arautu eta kudeatuko du ibilgailuen aparkamendua. Aparkalekua doakoa izango da.

Ondorioz, hitzarmena indarrean dagoen bitartean, Udalaren ardura izango da lagatako zona zaintzea, mantentzea eta garbitzea.

Bosgarrena.- Udalak ez du preziorik ordainduko lagapen horren ondorioz.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Seigarrena.- Lagapena amaitzean, AZKOITIKO Udalak partzela itzuliko du, lagapena egin aurretik zeukan egoeran eta baldintzetan, hau da:

- Partzelaren gainazala estaltzen duen hartxintxarra kenduko du, GURUTZEAGAKO ETXEBIZITZAK, S.L. sozietateak edota orubearen jabe berriak hala eskatzen badio.

-Aparkalekua seinaleztatzeko erabilitako seinaleak kenduko ditu.

Zazpigarrena.- Jabetzak ez du inolako erantzukizun zibilik izango hitzarmenak dirauen bitartean lagatako partzeletan gerta daitezkeen kalteen ondorioz.

Zortzigarrena.- Hitzarmen hau suntsiarazita geratuko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51 eta 52. Artikuluetan zehaztutakoaren arabera.

51.e) artikuluan zehaztutako kausen artean espresuki honakoak aurreikusten dira, hitzarmenaren suntsiarazpen kausa gisa:

1.- Partzelak GURUTZEAGAKO ETXEBIZITZAK S.L. sozietatearen jabetzako izateari uztea, salmentagatik, kargen exekuzioaren edo beste arrazoiren baten ondorioz titulartasuna aldatu delako. Hori gertatzea aurreikusten denean GURUTZEAGAKO ETXEBIZITZAK S.L. enpresak Udalari jakinaraziko dio, ahal duen aurrerapen handienarekin.

2.- GURUTZEAGAKO ETXEBIZITZAK S.L. enpresak orubean etxebizitzak eraikitzeo dagokion exekuzio proiektua aurkeztzen duenean. Kasu horretan Azkoitiko Udalak, hilabeteko epean, beharrezkoak diren lanak egingo ditu orubeak gaur egungo egoerara lehengoratzeko.

Bederatzigarrena.- Hitzarmen honen jarraipena egin ahal izateko dagokion bitariko batzordea sortuko da. Bitariko batzorde horretako kide izango dira Alkateak hautatutako bi kide eta sozietatearen ordezkarietan beste bi kide. Organo honi dagokio hitzarmen honen egikaritzan sortzen diren zalantzak eta interpretazio arazoak ebaztea eta hitzarmenaren betepenaren jarraipena egitea.

Hamargarrena.- Hitzarmen honen administrazio izaera dela medio, bertan zehaztuta ez dauden gaietako dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen xedatutakoaren arabera jardungo da eta honen interpretazioaren, aplikazioaren, betearazpenaren eta ondorioen inguruan sor daitezkeen auzi guztien berri izatea administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagokio.

Bigarrena.- Erabakia Gurutzeagako Etxebizitzak, S.L. eta Azkoitiko Udaleko Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hirugarrena.- Hitzarmenaren testua Udaletxeko Iragarki Taulan eta Gardentasun Atarian argitaratzea.

2021eko martxoaren 29an
ALKATEAK,